AZTERTU ETXEAN
2026

Etxetik ikasteko, kontzientzia hartzeko eta jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzaz gozatzeko online joko bat.

Animatu parte-hartzera eta gozatu ikasten duzun bitartean!

Edozein unetan batu zaitezke jokora.

[EUS]

Aukeratu astea eta hasi jolasten!

1. MAIATZAK 4 - MAIATZAK 10
2. MAIATZAK 11 - MAIATZAK 17
3. MAIATZAK 18 - MAIATZAK 24
4. MAIATZAK 25 - MAIATZAK 31
5. EKAINAK 1 - EKAINAK 7
6. EKAINAK 8 - EKAINAK 14
7. EKAINAK 15 - EKAINAK 21
8. EKAINAK 22 - EKAINAK 28

***Galdetegiak** aktibo mantenduko dira aste osoan zehar, igande bakoitzeko 23:59ak arte.*





aztertu

ingurumen hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

NOLA JOKATZEN DA?

Online galdetegi bakoitzean Aztertu Programan lantzen ditugun gaiei buruzko galderak aurkituko dituzue, hala nola, Euskadiko natura-ondarea, ekosistemen zaintza, ohitura jasangarriak, klima-aldaketa, ingurumenaren babesa...

Ez zara erregistratu behar. Hasi aurretik, soilik datu batzuk bete beharko dituzu: zure izena (edo nick-a) eta zure helbide elektronikoa, parte-hartzaileei jokoari buruzko informazioa bidaltzeko erabiliko duguna.

Ez da derrigorrezkoa astero jokatzea, baina horretara animatzen zaitugu.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Dibertitzeko eta ondo pasatzeko joko bat da eta, aldi berean, gure ingurune naturalari buruz gehiago ikasteko pentsaturikoa. Horrez gain, hezkuntza-baliabide gisa ere erabil daiteke.

Edonork parte hartu dezake, adina edo lanbidea kontuan izan gabe.

Gomendaturiko adina: 11 urtetik aurrera.

ZENBAT IRAUTEN DU JOKOAK?

Jokoaren iraupena 8 astekoa izango da, maiatzaren 4tik ekainaren 28ra.
Astero, astelehenean goizeko 8:30etan, galdetegi berri bat argitaratuko da.
Aste bereko igandeko 23:59etararte aukera izango duzu galdetegia betetzeko.

Asteren batean ezin baduzu parte hartu, ez zaitez kezkatu: edozein momentutan batu zaitezke eta zure erritmora jolastu.

ORDUAN... LEHIAKETA BAT DA?

Ez, ez da lehiaketa bat, eta ez dago lehiaketa bezala pentsatuta, baina sailkapen bat egongo da parte hartzera animatzeko sustagarri gisa.

2027ko otsailean egingo den Aztertu Programaren sari-banaketan, aipamen berezia egingo zaie sailkapen onena lortzen duten hiru pertsonei. Gainera, zozketa bidez saritutako laugarren pertsona bat egongo da gutxienez astebetez parte hartu dutenen artean. Sari-banaketa horretan guztiei opari bana emango zaie.

ZALANTZAK ETA GALDERAK

Aztertu Etxean programari buruzko edozein galdera baduzu, Aztertu Programako lantaldearekin jar zaitezke harremanetan:



747 42 99 33

@aztertuprograma

aztertu@euskadi.eus

www.euskadi.eus/aztertu

aztertu

ingurumen hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO